

# DNA

CREACIÓN 2019

 Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

## *La comunidad de la danza y la danza en la comunidad*

### 1 / PRESENTACIÓN

DNA es un programa artístico organizado por la Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana cuya finalidad es la promoción de la danza contemporánea y las artes del movimiento.

DNA se configura como un elemento necesario para trabajar la cohesión del sector y la consolidación de su relación con el territorio a través de un programa bienal que alterna un programa dedicado a la creación y a la investigación centrado en lo local (DNA Creación 2019) con un programa destinado a la exhibición (DNA Festival 2020). El formato festival contemplará en su programación la exhibición de los resultados de las residencias e incluirá trabajos nacionales e internacionales.

DNA Creación 2019 pretende intervenir positivamente facilitando al sector espacios de encuentro que favorezcan el intercambio creativo entre profesionales. Estos espacios, a su vez, funcionan como un punto de anclaje en y con el territorio y suponen la ocasión para trabajar proyectos de mediación con los públicos de los entornos locales que albergan las residencias creativas.

La incorporación de ATALAK 2.0 a DNA Creación 2019 constituye un revulsivo para la danza en Navarra. Este proyecto, generado por Dantzaz, permite la incorporación de Navarra a un proyecto de colaboración en el ámbito internacional en el que también participan entidades relacionadas con la danza de nuestro entorno más próximo. ATALAK busca la profesionalización de jóvenes bailarines que han finalizado su formación, y su función en Navarra consiste en abrir un espacio para que los y las profesionales puedan incorporarse a este programa y proponer sus creaciones.

Las residencias de investigación-creación son en sí acciones creadoras de comunidad. A este objetivo contribuirá también el acompañamiento creativo a los proyectos y artistas de las residencias durante todo el proceso, trabajo que será desarrollado por una persona del sector.

El programa DNA Creación 2019 finalizará en septiembre con una puesta en común de los proyectos seleccionados.

## 2 / CONVOCATORIA DNA CREACIÓN 2019

El Gobierno de Navarra, a través del Servicio de Acción Cultural de la Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana, pone en marcha la convocatoria de cuatro residencias de creación/investigación que integrarán el programa DNA Creación 2019.

Resumen de la convocatoria:

- **Objetivo del programa:** DNA Creación es un programa de residencias de creación y/o investigación para profesionales de la danza de Navarra o vinculados con Navarra. El objetivo es promover la creación de proyectos de danza contemporánea, promocionar la danza y las artes del movimiento en el territorio, trabajar la mediación con el público para crear un entorno positivo para estas disciplinas y fomentar el espíritu de comunidad creativa entre los artistas participantes. A DNA Creación, le seguirá en 2020 DNA Festival, que se abrirá a la difusión de los proyectos creados en 2019.
- **Residencias:** Se convocan 4 residencias de investigación y/o creación. Los espacios que acogerán residencias son Harriondoa Kultur Etxea-Casa de Cultura de Lesaka, Auditorio Barañain, Centro Cultural Tafalla Kulturunea y el Centro de Arte Contemporáneo de Huarte-Huarte Zentroa. Además, Tudela acogerá en el Teatro Gaztambide el proyecto ATALAK 2.0 del cual, el Gobierno de Navarra es socio principal
- **Requisitos:** Podrán participar profesionales navarros o que tengan a través de sus proyectos una evidente vinculación con Navarra.
- **Fechas:** Las residencias tendrán una duración mínima de 2 semanas y máxima de 4 semanas entre abril y septiembre de 2019. A finales de septiembre tendrá lugar una sesión de trabajo conjunta en el Centro de Arte Contemporáneo de Huarte-Huarte Zentroa entre los y las artistas participantes.
- **Dotación económica:** las residencias que alberguen proyectos de creación y/o investigación de un mes contarán con una dotación económica de 14.520 euros (IVA incluido). Las residencias que tengan una duración de dos semanas tendrán una dotación económica de 7.260 euros (IVA incluido)
- **Mediación:** todos los proyectos que se presenten deberán incluir un proyecto de mediación para trabajar con las entidades o colectivos que sean prioritarios para el espacio sede del proyecto.
- **Convocatoria:** El plazo para la presentación de proyectos se inicia el 18 de febrero y finalizará el 10 de marzo.
- **Selección de proyectos:** La selección de los proyectos que participarán en esta edición de DNA Creación se dará a conocer antes del 15 de marzo
- **Seguimiento:** Un equipo técnico del Servicio de Acción Cultural realizará el seguimiento de los proyectos seleccionados. Asimismo una persona del sector, realizará un acompañamiento creativo con el fin de conocer el desarrollo y evolución de los proyectos y encontrar las claves que permitan colocar cada proyecto en diálogo con los demás en la jornada de septiembre que se llevará a cabo en el Centro de Arte Contemporáneo de Huarte-Huarte Zentroa. El seguimiento se organizará en función de las características de los proyectos seleccionados.
- **Documentación:** Todos los procesos de creación serán recogidos en un vídeo con el fin de documentar tanto dichos procesos como el programa en su conjunto. Las compañías seleccionadas deberán colaborar tanto con la persona que trabaje en el seguimiento como con los profesionales designados para la realización del vídeo. Las compañías seleccionadas recibirán una copia del material que se edite para su propio archivo.

### 2.1 / OBJETIVOS DE LAS RESIDENCIAS

- Apoyar económicamente al sector profesional de la danza y de las artes del movimiento de Navarra en los procesos de investigación y creación mediante las residencias.
- Contribuir a la cohesión interna del sector.
- Crear nuevos públicos mediante acciones de mediación que ayuden a entender los códigos propios de la danza y las artes del movimiento.
- Tejer redes en el contexto local, regional y de la Euro-región Navarra-Nueva Aquitania-Euskadi; redes dentro del sector y con otros profesionales culturales.

- Ayudar a mantener actualizada la información sobre el sector profesional de la danza contemporánea y de las artes del movimiento.
- Ayudar a difundir la creación del sector de la danza mediante la exhibición de los resultados de los proyectos seleccionados en el Festival DNA del 2020.
- Mejorar el posicionamiento del colectivo de la danza en el ámbito cultural.
- Difundir la danza contemporánea aprovechando los recursos de difusión del Gobierno de Navarra, más otros que se creen para tal efecto.

## 2.2 / CARACTERÍSTICAS DE LAS RESIDENCIAS

- Los proyectos han de ser presentados por profesionales o compañías de danza que acrediten una relación con Navarra.
- Se podrá optar a cuatro Residencias de Creación y/o Investigación. Las sedes son: Auditorio de Barañáin, Harriondoa KulturEtxea- Casa de Cultura de Lesaka, Centro de Arte Contemporáneo de Huarte y Centro Cultural Tafalla Kulturgunea. La duración de las residencias será como mínimo de dos semanas y como máximo de cuatro semanas entre los meses de abril a septiembre, según el calendario disponible de la sede.
- Los proyectos seleccionados elegirán, por orden de puntuación obtenida en el proceso de evaluación, la sede en la que desarrollarán su trabajo.
- Además de contar con las infraestructuras que el espacio o sede ponga a disposición de los proyectos, cada residencia contará con una dotación económica. Las residencias que alberguen proyectos de un mes contarán con una dotación económica de 14.520 euros (IVA incluido). Las residencias que tengan una duración de dos semanas tendrán una dotación económica de 7.260 euros (IVA incluido). La mitad de la dotación se cobrará al inicio, una vez firmado el contrato correspondiente con la Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana y el resto una vez realizado el proyecto y presentada una Memoria que deberá recibir la evaluación positiva de la comisión de selección. En cualquier caso, previa presentación de las facturas correspondientes. En el Anexo adjunto se indican los gastos justificables mediante factura.
- La Memoria de fin de proyecto deberá presentarse como máximo al mes de finalizar la residencia. Esta memoria deberá recoger referencias, al menos, de tres fases del proceso: fase inicial, método de trabajo y conclusiones-muestra del trabajo así como el grado de cumplimiento de los distintos aspectos del proyecto respecto a lo recogido en la memoria descriptiva que se presentó junto con la solicitud. Se indicará además la distribución por sexo de las personas que componen el equipo del proyecto.
- Los proyectos pueden ser presentados en castellano y/o euskera.

## 2.3 / REQUISITOS PARA PARTICIPAR

- Nombre y datos de contacto de la persona que presenta el proyecto ya sea en su nombre o en el de una compañía.
- La persona o compañía han de acreditar su condición foral mediante: partida de nacimiento, certificado de residencia en el momento de la presentación del proyecto o en su defecto, demostrar su formación o haber trabajado en Navarra al menos durante dos años o que el proyecto esté expresamente relacionado con la Comunidad Foral y/o vinculado con sus artistas.
- Currículum vitae o trayectoria de la compañía.
- Proyecto de creación o investigación en el que se indiquen: sede a la que se pretende optar, objetivos, composición del equipo, modelos de trabajo, cronograma del proyecto, si se pretende contar con colaboraciones, etc.
- Proyecto de mediación orientado a la sede a la que se pretende optar y que tenga como objetivo acercar la danza contemporánea al público.
- En el proyecto se propondrá un formato para la exhibición del resultado de la residencia.

- Toda la documentación arriba señalada se enviará a través del correo electrónico [difusion@navarra.es](mailto:difusion@navarra.es) antes del 10 de marzo de 2019 a las 14,00 horas.
- Otro requisito es estar dado/a de alta en la Seguridad Social durante todo el período de la residencia.

## 2.4 / OBLIGACIONES DE LOS Y LAS PARTICIPANTES

- Cumplimiento de las condiciones que se establezcan antes de iniciar la Residencia, en lo que se refiera a horarios, calendario y otros compromisos.
- Presentación de una Memoria en el plazo de un mes desde el fin de la residencia.
- La Dirección General de Cultura se reserva el derecho a difundir la participación de los artistas antes, durante y después del periodo de residencia.
- Los y las artistas seleccionados participarán en las actividades de difusión del programa que se promuevan desde el Servicio de Acción Cultural
- Los y las participantes deberán incluir el logotipo del Gobierno de Navarra en todos los soportes promocionales que utilicen para la difusión del proyecto seleccionado.
- Los y las participantes deberán finalizar la residencia con algún tipo de presentación pública en el formato elegido por los artistas y en función de la disponibilidad del espacio en el que tenga lugar la residencia.
- Facilitar las labores de acompañamiento de la persona que realiza el seguimiento y participar en las acciones de mediación colectiva entre los participantes de las Residencias que tendrán lugar en el Centro de Arte Contemporáneo de Huarte
- Facilitar las labores de seguimiento del personal del Gobierno de Navarra para el cumplimiento del programa

## 2.5 / CRITERIOS DE SELECCIÓN

La Comisión de Evaluación de Proyectos estará compuesta por las siguientes personas: una persona experta en la gestión de proyectos relacionados con la danza o las artes del movimiento y una persona profesional de la gestión cultural de los espacios sedes del programa y, por parte de la Dirección General de Cultura, la directora del Servicio de Acción Cultural y la jefa de la Sección de Creación y Difusión Artística.

Actuará como secretaria o secretario, un-a técnico superior de cultura de la Sección de Creación y Difusión Artística.

Los criterios a valorar por la Comisión de Evaluación para las Residencias de Creación:

- Valoración de los objetivos, desarrollo y /o método de trabajo, coherencia del proyecto, aportación del proyecto a la trayectoria del artista o de la compañía (25 puntos)
- Valoración de las acciones de mediación propuestas y acciones educativas (25 puntos)
- Viabilidad de exhibición (15 puntos).
- Propuesta de exhibición de los resultados de la residencia (10 puntos).
- Procesos de investigación de nuevos lenguajes (10 puntos).
- Propuesta conceptual (5 puntos).
- Trayectoria profesional (5 puntos).
- Participación colaborativa con otros profesionales del sector (5 puntos).

Las compañías seleccionadas elegirán la sede donde realizar su trabajo en función de la puntuación obtenida. Las fechas y condiciones específicas de cada proyecto seleccionado se revisarán con los responsables de las sedes antes de comenzar la residencia.

## ANEXO CONDICIONES ECONÓMICAS

Además de contar con las infraestructuras que el espacio o sede ponga a disposición de los proyectos, cada residencia contará con una dotación económica.

Las residencias que alberguen proyectos de un mes contarán con una dotación económica de 14.520 euros (IVA incluido).

Las residencias que tengan una duración de dos semanas tendrán una dotación económica de 7.260 euros (IVA incluido).

La mitad de la dotación se cobrará al inicio, una vez firmado el contrato correspondiente con la Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana y el resto, una vez realizado el proyecto y presentada una Memoria que deberá recibir la valoración positiva de la comisión de selección. En cualquier caso, previa presentación de las facturas correspondientes.

### Gastos justificables mediante factura

Los gastos relacionados con el proyecto justificables mediante factura a nombre de la compañía o profesional que lo presenta, son los siguientes:

- Gastos directos: costes salariales y seguridad social del personal que integra el proyecto artístico así como gastos derivados de la contratación de medios externos, tales como alquileres de equipos técnicos y otros medios materiales.

- En el caso de adquisición de bienes de equipo inventariables para la puesta en práctica del proyecto seleccionado, se considerará como gasto la amortización de los mismos en la proporción que sea imputable al proyecto de residencia atendiendo a los criterios generales de contabilidad (según legislación vigente).

- También son gastos justificables los correspondientes viajes, estancia y manutención de los miembros involucrados en el proyecto durante el período de residencia. Estos gastos estarán sometidos a las siguientes condiciones:

- Los gastos de manutención (destinados a desayuno, comida y/o cenas) no superarán los 45€ por persona y día. Se justificarán con facturas de establecimientos hosteleros de la localidad.

- Los gastos de viaje y/o kilometraje solo podrán aplicarse al traslado de los miembros que configuran el proyecto desde su lugar de residencia habitual a la localidad de residencia y regreso y estarán limitados a 0,30 euros/km o se acreditarán mediante la presentación de los billetes de tren (clase turista) o autobús, utilizados para dicho traslado.

- Por gastos de alojamiento se abonará un máximo de 60 euros por persona/día.

# ANEXO I / SEDES DE LAS RESIDENCIAS

## FUNDACIÓN AUDITORIO BARAÑAIN

### Persona de contacto

Lorea Mendez Gomez

t. 657 217 916 / 948 281 038

### Líneas de trabajo generales del espacio

**Periferia:** exhibición de danza, residencias artísticas de danza, talleres de danza, también albergamos cursos de tres escuelas de danza en nuestras aulas.

**INART:** espectáculos, proyectos y residencias artísticas de inclusión social a través de las artes escénicas.

**ONART:** exhibición para niños, jóvenes y familias, espectáculos para centros escolares, colonias de verano.

**BÑB:** exhibición de espectáculos variados de música y teatro. Cesiones del Ayuntamiento, iniciativas con colectivos y otros agentes culturales de la localidad.

### Descripción física y técnica

Auditorio con capacidad para 650 espectadores. Escenario de 500 metros cuadrados. 4 salas de ensayo donde se imparten clases de danza, talleres...

### Calendario y horario disponible para la residencia

ABRIL: 1-4, 8, 11, 15-26, 28-30

MAYO: 1-2, 7, 8, 10, 13-15, 20-22, 26-30

JUNIO: 1-7, 10-13, 17-19, 21, 23, 24-30

JULIO: libre

AGOSTO: Libre

### Proyectos de mediación con públicos:

#### relación de entidades-asociaciones-escuelas que tienen relación con el espacio

El Auditorio Barañain es la sede de la Asociación de danza HAIZEA. Tenemos relación con IES Barañain y Alaitz BHI con quienes ya hemos llevado proyectos a cabo. Contamos con una base de datos donde están incluidas las escuelas de danza así como todo el público interesado en esta disciplina. También tenemos con un listado de todas las asociaciones y colectivos de Barañain.

## CENTRO CULTURAL TAFALLA

### **Persona de contacto**

Javier Ayerra Alfaro

---

t. 646 150 217

---

### **Líneas de trabajo generales del espacio**

El Centro cultural Tafalla Kuturgunea trabaja desde diversos puntos de vista. Por una parte tiene una programación general estable y variada de carácter generalista con la programación de teatro, música, danza, programación infantil, programación en euskera... así como el apoyo a la creación de grupos locales de teatro, música, danza. También tiene una programación de cine comercial y de ciclos de cine, apoyo a los centros de enseñanza en sus actividades docentes y culturales, presentación de libros, apoyo a instituciones, reuniones y charlas de carácter público y organizado por entidades públicas.

### **Descripción física y técnica**

El espacio que se pone a disposición es la Sala Multidisciplinar María del Villar Berruezo (llamada popularmente como Sala Negra). Es una sala en la que se instalaría un suelo de danza de aproximadamente 12 x 10 m. La sala tiene dotación técnica de sonido en unas galerías en altura para la instalación de iluminación con un pach suficiente para iluminar desde cualquier lugar de la sala.

---

### **Calendario y horario disponible para la residencia**

Junio: del 3 al 28.

Laborales de 9:30 a 14:00 y de 15:00 a 21:00.

Sábados y festivos a concretar. Si son necesarios más espacios se podría valorar la utilización de la Sala de Danza con suelo flotante de 9:30 a 14:00 de 9:30 a 14:00 y de 15:00 a 18:00.

---

### **Proyectos de mediación con públicos:**

#### **relación de entidades-asociaciones-escuelas que tienen relación con el espacio**

Tafalla cuenta con una escuela de Danza de Ana Irala de carácter privado. También con un grupo de Dantzaris y con varios grupos de carácter sociocultural: Grupo variedades tafallesas, Grupo de bailes de salón..

### Persona de contacto

Elisa Arteta

---

t. 948 361 457

---

### Líneas de trabajo generales del espacio

El principal espacio para prácticas escénicas es la sala polivalente, amplia, con luz natural y suelo de madera., Pero además, desde hace unos meses el Centro de Huarte tiene una segunda sala, el laboratorio de cuerpos, más pequeña y con suelo más duro, pero que ofrece la posibilidad de trabajar en conexión con el audiolab, perfecta para proyectos que investiguen a través del cuerpo y sonido, o incluso la imagen audiovisual.

---

### Descripción física y técnica

Sala polivalente: 180 m<sup>2</sup> con altura: 4,5 m y 66 m<sup>2</sup> con altura de 3,5 m. Laboratorio de cuerpos: 60 m<sup>2</sup> con altura de 4,30 m. El Centro de Huarte pone a disposición de los artistas diferentes recursos técnicos y tecnológicos para el desarrollo de sus proyectos, desde cámara de vídeo, micrófonos, plotter, impresoras, grabadoras de sonido, etc hasta programas de edición de vídeo y sonido. Pueden verse los recursos en la siguiente página: [www.centrohuarte.es/elcentro/instalaciones](http://www.centrohuarte.es/elcentro/instalaciones)

---

### Calendario y horario disponible para la residencia

El horario como centro producción es de lunes a viernes de 10:00 a 20:00. Los fines de semana está abierto al público de 11:00 a 14:30 y también pueden usarse algunos espacios, dependiendo de su disponibilidad según los eventos que haya.

---

### Proyectos de mediación con públicos:

#### relación de entidades-asociaciones-escuelas que tienen relación con el espacio

TEl Centro de Huarte es un espacio de producción artística, enfocado en la experimentación e investigación teórica y/o práctica), y que ofrece recursos para todo tipo de medios artísticos, entendiendo que nos y otros se retroalimentan. También es un lugar para tejer redes afectivas y profesionales, con las personas que trabajan/habitan diariamente en el centro, y con otras entidades, espacios y profesionales externos que colaboran con el mismo. Colectivos, asociaciones: En el Centro Huarte se desarrollan habitualmente proyectos que implican a la comunidad local, colaborando con colectivos y asociaciones de muy diversa índole. Nos interesa un acercamiento de las herramientas artísticas a la población, de tal forma que puedan sumergirse en procesos en los que generen materiales artísticos, conocimientos y/o formas de expresión, por encima de que entiendan el arte como un resultado inerte.



## CASA DE CULTURA HARRIONDOA-LESAKA

### Persona de contacto

Belén Mutuberria Vergara

---

t. 948 638 007 / 690 230 031

---

### Líneas de trabajo generales del espacio

Intentamos una programación continuada teniendo en cuenta las distintas disciplinas y distintos públicos para poder ofrecer un poco de todo y para todos, siempre teniendo en cuenta el presupuesto destinado a ello y coordinando con la agenda local y festiva.

---

### Descripción física y técnica

La Sala tiene unas dimensiones de 12,6 m de ancho, 18,45 m de fondo y 10,32 m de alto. Dispone de iluminación (pach video-.cabina), proyectores, audiovisuales y microfonía. La luz de sala y trabajo se puede accionar desde galería escenario y cabina. La cabina está situada sobre la sala de butacas, desde donde se manejan los controles de iluminación, imagen y sonido.

---

### Calendario y horario disponible para la residencia

Del 29 de abril a 26 de mayo

---


### Proyectos de mediación con públicos:

#### relación de entidades-asociaciones-escuelas que tienen relación con el espacio

Entidades que utilizan el espacio: Gure Arrano Elkartea, Tantirumairu ikastola, Otxogorrienea guraso elkartea, Bortzirietako bertso eskola, Irain gurao elkartea, Irain eskola, Mairu antzerki taldea, San Fermín jubilatuta elkartea, Tantirumairu Euskal Folklore taldea, Lesakako Zertitzuen Elkartea, Lesakako Euskara Batzordea, Buruztanka Elkartea, S.C.R.D. Beti Gazte K.J.K.E., Sociedad Pelotazale Arkupe, Batzoki Elkartea, Bortziriak Pilota Elkartea, Lesakako Abesbatza, Giltzarri Abesbatza, Musika Eskola, Lesakako musika banda, Lesakako soinulariak, Trikitritxa Taldea, Txistulari Taldea, Bortzirietako gorriak, Bihotzkada Kolektiboa.

# DNA

SORKUNTZA 2019

 Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

## *Dantzaren komunitatea eta dantza komunitatean*

### 1 / AURKEZPENA

Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak antolatutako programa artistiko bat da DNA, dantza garaikidea eta mugimenduaren arteak sustatzea helburu duena.

Sektorearen kohesioa lantzeko eta haren lotura lurraldearekin sendotzeko beharrezko elementu gisa egituratzen da DNA, bi urtez behingo programa baten eskutik. Bi adar ditu programak: bata, sorkuntzari eta ikerkuntzari lotutakoa, tokikoan oinarrituta (DNA Sorkuntza 2019), eta bestea, erakustaldiari lotutakoa (DNA Jaialdia 2020). Jaialdiarenak egoitzen emaitzak erakutsi beharko ditu programuazioan, baita nazioko zein nazioarteko lanak barnebildu ere.

DNA Sorkuntza 2019 adarrak, aldiz, modu positiboan esku hartu nahi du, profesionalen arteko sormen-trukatzea erraztuko duten topaguneak sortuz. Topagune horiek, gainera, ainguratze gisa funtzionatuko dute lurraldean eta lurraldearekin, eta sormen-egoitzak hartuko dituzten toki-inguruneetako ikusleekin bitartekaritza-proiektuak lantzeko aukera emango dute.

ATALAK 2.0 proiektua DNA Sorkuntza 2019 adarrean sartu izana bultzagarria da dantzarako Nafarroan. Dantza-ek sortuta, bide ematen dio Nafarroari lankidetzaren proiektu batean sartzeko nazioarteko mailan. Gure ingurumen hurbileneke beste dantza-entitate batzuek ere parte hartzen dute lankidetzaren proiektu horretan. ATALAK proiektuak prestakuntza bukatu duten dantzari gazteen profesionalizazioa lortu nahi du; horretarako, espazio bat zabaldu nahi du Nafarroan, profesionalen programa honekin bat egin eta haien sormen-lanak proposatu ditzaten.

Ikerkuntza-sorkuntzako egoitzak komunitatea sortzen duten ekintzak dira, berez. Helburu hori erdiesteko, sormen-akonpainamendua emango zaie egoitzen proiektu eta artistei prozesu osoan zehar, eta sektorearen pertsona batek emango du akonpainamendu hori.

DNA Sorkuntza 2019 programa irailean amaituko da. Aukeratutako proiektuak partekatuko dira orduan.

## 2 / DNA SORKUNTZA 2019 DEIALDIA

Nafarroako Gobernuak, Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeko Kultura Ekintzako Zerbitzuaren bitartez, lau sorkuntza- eta/edo ikerkuntza-egoitzatarako deialdia abian jarri du. DNA Sorkuntza 2019 programa osatuko dute egoitzek.

Deialdiaren laburpena:

- **Programaren helburua:** DNA Sorkuntza Nafarroako edo Nafarroari lotutako dantza-profesionalei eskainitako sorkuntza- eta/edo ikerkuntza-egoitzen programa bat da. Hauek guztiak ditu helburu: dantza garaikideko proiektuen sorkuntza sustatzea; dantza eta mugimenduaren arteak suspertzea lurraldean; bitartekaritza ikusleekin lantzea, diziplina horietarako ingurune positibo bat sortzeari begira; eta sormen-komunitateko sena sustatzea artista parte-hartzaileen artean. DNA Sorkuntza amaitutakoan, DNA Jaialdia egingo da, 2020an, 2019an sortutako proiektuak hedatzea xede izango duena.
- **Egoitzak:** Lau sorkuntza- eta/edo ikerkuntza-egoitza deitzen dira: Espazio hauek hartuko dituzte egoitzak: Harriondoa Kultur Etxea-Casa de Cultura de Lesaka, Auditorio Barañain, Centro Cultural Tafalla Kulturgunea eta Centro de Arte Contemporáneo de Huarte-Huarte Zentroa. Gainera, Tuterako Gaztambide antzokiak ATALAK 2.0 proiektua hartuko du, zeinaren bazkide nagusia baita Nafarroako Gobernuak.
- **Baldintzak:** Nafarroako profesionalek edo haien proiektuen bidez Nafarroarekin begi-bistako lotura duten profesionalek parte hartu ahalko dute.
- **Datak:** Gutxienez bi aste eta gehienez 4 aste iraungo dute egoitzek, 2019ko apiriletik irailera arte. Irailaren amaieran, baterako lan-saioa egingo dute artista parte-hartzaileek Centro de Arte Contemporáneo de Huarte-Huarte Zentroan.
- **Diru-hornidura:** Sorkuntza- eta/edo ikerkuntza-proiektuak hartuko dituzten hilabete bateko egoitzek 14.520 euroko diru-hornidura jasoko dute (BEZ barne). Bi asteko egoitzek, aldiz, 7.260 euroko diru-hornidura jasoko dute (BEZ barne).
- **Bitartekaritza:** proiektua hartuko duen espazioak lehentasunezko zat joko dituen entitate edo kolektiboekin lan egiteko bitartekaritza-proiektu bat barnebidu beharko dute aurkeztutako proiektu guztiek.
- **Deialdia:** Proiektuak aurkezteko epea otsailaren 18ean hasi eta martxoaren 10ean amaituko da.
- **Proiektuen aukeraketa:** DNA Sorkuntzaren edizio honetan parte hartuko duten proiektuak martxoaren 15a baino lehen ezagutaraziko dira.
- **Jarraipena:** Kultura Ekintzako Zerbitzuko teknikari-talde batek egingo die jarraipena aukeratutako proiektuei. Halaber, sektorearen pertsona batek sormen-akonpainamendua egingo du, helburu bikoitzarekin: proiektuen garapen eta bilakaera ezagutzea zein Centro de Arte Contemporáneo de Huarte-Huarte Zentroan iraileko jardunaldian egingo diren proiektuak elkarrekin elkarriketetan jarri ahal izateko gakoak bilatzea. Aukeratutako proiektuen ezaugarrien arabera antolatuko da jarraipena.
- **Dokumentazioa:** Bideo batean jasoko dira sorkuntza-proiektu guztiak, bai aipatutako prozesuak, bai programa oro har dokumentatze aldera. Aukeratutako konpainiek kolaboratu egin beharko dute jarraipena egingo duen pertsonarekin zein bideo egiteko ardura izango duten profesionalekin. Aukeratutako konpainiek editatutako den materialaren kopia bat jasoko dute, eta gorde egin ahalgo dute.

### 2.1 / EGOITZEN HELBURUAK

- Nafarroako dantzaren eta mugimenduko arteen sektore profesionalari diruz laguntzea, egoitzen bidez, ikerkuntza- zein sorkuntza-proiektuetan.
- Sektorearen barne-kohesioa lortzen laguntzea.
- Ikusle berriak sortzea bitartekaritza-ekintzen bidez (dantzaren eta mugimenduko arteen berezko kodeak ulertzen lagunduko dute ekintzek).
- Sareak ehuntzea, bai tokiko, erregioiko eta Nafarroa-Akitania Berria-Euskadi Euroerregioiko mailako testuinguruan, bai sektorearen barruan zein beste kultura-profesional batzuekin.
- Dantzaren eta mugimenduko arteen sektore profesionalari buruzko informazioa eguneratzen laguntzea.

- Dantzaren sektorearen sorkuntza hedatzen laguntzea, aukeratutako proiektuen emaitzak 2020ko DNA Jaialdian erakutsiz.
- Dantzaren kolektiboak kultura-eremuan duen posizionamendua hobetzea.
- Dantza garaikidea hedatzea Nafarroako Gobernuko hedapen-baliabideen bidez zein horretarako propio sortutako beste batzuen bidez.

## 2.2 / EGOITZEN EZAUGARRIAK

- Nafarroarekin lotura dutela egiaztatzen duten dantza-profesional edo -konpainiek aurkeztu ahalko dituzte proiektuak.
- Lau sorkuntza- eta/edo ikerkuntza-egoitza egongo dira aukeran: Hona hemen espazioak: Barañain Auditorioa, Harriondoa KulturEtxea-Casa de Cultura de Lesaka, Centro de Arte Contemporáneo de Huarte eta Centro Cultural Tafalla Kulturgunea. Gutxienez bi aste eta gehienez 4 aste iraungo dute egoitzek, apiriletik irailera arte, noiz dagoen erabiltzeko moduan espazio bakoitza.
- Aukeratutako proiektuek erabakiko dute non egin egoitza, ebaluazio-prozesuan lortutako puntuazioaren hurrenkerari jarraiki.
- Espazioak proiektuen eskura jarritako azpiegituz gain, egoitza bakoitzak diru-hornidura bat izango du: Hilabete bateko proiektuak hartuko dituzten egoitzek 14.520 euroko diru-hornidura jasoko dute (BEZ barne). Bi asteko iraupeneko egoitzek, aldiz, 7.260 euroko diru-hornidura jasoko dute (BEZ barne). Horniduraren erdia hasieran kobratuko da, kontratua Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearekin sinatutakoan, eta gainerakoa, proiektua egin eta memoria aurkeztu ondoren (aukeraketa-batzordeak ebaluazio positiboa eman beharko dio, dena den, memoriari). Edonola ere, beharrezko fakturak aurkeztu beharko dira kobratu aurretik. Eranskinean zehazten dira faktura bidez justifikatu daitezkeen gastuak.
- Proiektu-amaierako memoria egoitza bukatu eta hilabetera aurkeztu beharko da, berenduenek. Memoriak gutxienez prozesuaren hiru faseren (hasierakoa, lan-metodoa eta lanaren konklusioak eta lana bera erakustea) erreferentziak jaso beharko ditu. Halaber, eskaerarekin batera aurkeztu zen deskripzio-memorian jasotakoa zer neurritaraino bete den erakutsi beharko du memoriari. Proiektuaren taldekideen artean zenbat diren emakumezkoak eta zenbat gizonezkoak zehaztuko da.
- Proiektuak euskaraz eta/edo gaztelaniaz aurkeztu ahal dira.

## 2.3 / PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- Proiektua aurkezten duenaren izena-abizenak eta harremanetarako datuak ematea, izan bere izenean, izan konpainia baten izenean.
- Pertsona edo konpainiaren nafartasuna egiaztatzea; bide hauek ditu horretarako: jaiotza-agiria edo proiektua aurkeztu zen eguneko bizileku-ziurtagiria aurkeztea edo, bestela, egiaztatzea prestakuntza Nafarroan jaso duela, gutxienez bi urtez lan egin duela Nafarroan edo proiektuak begi-bistako lotura duela Nafarroarekin eta/edo nafar artistekin.
- Konpainiaren curriculum vitae edo ibilbidea aurkeztea.
- Sorkuntza- edo ikerkuntza-proiektua aurkeztea, hauxe zehaztuta: zer espazio nahi duen, helburuak, taldearen eraketa, lan-ereduak, proiektuaren kronograma, kolaboratzaileekin lan egiteko asmoa...
- Bitartekaritza-proiektu bat aurkeztea, nahi den espaziora egokitutakoa eta dantza garaikidea ikusleengana hurbiltzea helburu izango duena.
- Egoitzaren emaitzaren erakustaldirako formatu bat proposatuko da proiektuan.
- Alta izatea Gizarte Segurantzaren egoitzak irauten duen aldi osoan.
- Goiko dokumentazio guztia difusion@navarra.es helbide elektronikoaren bidez bidaliko da, 2019ko martxoaren 10ko 14:00ak baino lehen.

## 2.4 / PARTE-HARTZAILEEK BETE BEHARREKOAK

- Egoitza hasi aurretik ezarritako baldintzak betetzea, ordutegiei, egutegiei eta bestelako konpromisoei dagokienez.
- Memoria bat aurkeztea egoitza amaitu eta hilabete batera.
- Kultura Zuzendaritza Nagusiak beretzat gordetzen du artisten parte-hartzea hedatzeko eskubidea, egoitza hasi aurretik, bitartean eta amaitutakoan.
- Artistek eskatuko zaien hedapen-ekintzetan parte hartuko dute, baita Nafarroako Gobernuak egingo duen dokumentu grafikoaren filmaketan ere (bai hedapen-xedeekin, bai artxibo dokumental gisa egingo da).
- Parte-hartzaileek Nafarroako Gobernuaren logotipoa jarri beharko dute proiektua hedatzeko erabiliko dituzten sustapen-euskarri guztietan.
- Parte-hartzaileek jendaurreko emanaldiren bat egin beharko dute egoitzaren amaieran, artistek aukeratutako formatuan eta egoitza egin den espazioaren aukeren arabera betiere.
- Kanpoko adituaren akonpainamendu-lanak erraztu behar dituzte, baita Centro de Arte Contemporáneo de Huarte-Huarte Zentroan egingo diren egoitzen parte-hartzaileen arteko bitartekaritza kolektiboko ekintzetan parte hartu ere.
- Nafarroako Gobernuak langileek programa betearazteko egin behar dituzten jarraipen-zereginak erraztu beharko dituzte.

## 2.5 / AUKERAKETA-IRIZPIDEAK

Ondokoek osatuko dute proiektuak ebaluatzeko batzordea: aditu bat dantzarekin edo mugimenduko arteekin lotutako proiektuen kudeaketan, egoitzak egingo diren espazioen kultura-kudeatzaile bat eta, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren aldetik, Kultura Ekintzako Zerbitzuko zuzendaria zein Arte Sorkuntzaren eta Hedapenaren Ataleko burua.

Arte Sorkuntzaren eta Hedapenaren Ataleko goi-mailako kultura-teknikari bat arituko da idazkari gisa.

Irizpide hauek baloratuko ditu sorkuntza-egoitzetarako ebaluazio-batzordeak:

- Helburuen, garapenaren eta/edo lan-metodoaren balorazioa, proiektuaren koherentzia, proiektuaren ekarpena artista edo konpainiaren ibilbideari (25 puntu)
- Proposatutako bitartekaritza-ekintzen eta heziketa-ekintzen balorazioa (25 puntu)
- Erakustaldiaren bideragarritasuna (15 puntu)
- Egoitzaren emaitzak erakusteko proposamena (10 puntu)
- Lengoia berrien ikerkuntza-prozesuak sartu izana (10 puntu)
- Proposamen kontzeptuala (5 puntu).
- Ibilbide profesionala (5 puntu).
- Lankidetzazko parte-hartzea sektorearen beste profesional batzuekin (5 puntu).

Aukeratutako konpainiek lortutako puntuazioaren arabera hautatuko dute zer espaziotan lan egin. Aukeratutako proiektu bakoitzaren datak eta baldintza espezifikoko espazioen arduradunekin berrikusiko dira egoitza hasi aurretik.

Iruña, 2017ko otsailaren 18a.

## BALDINTZA EKONOMIKOEN ERANSKINA

Espazioak proiektuen eskura jarritako azpiegituz gain, egoitza bakoitzak diru-hornidura bat izango du:

Hilabete bateko proiektuak hartuko dituzten egoitzek 14.520 euroko diru-hornidura jasoko dute (BEZ barne).

Bi asteko iraupeneko egoitzek, aldiz, 7.260 euroko diru-hornidura jasoko dute (BEZ barne).

Horniduraren erdia hasieran kobratuko da, kontratua Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearekin sinatutakoan, eta gainerakoa, proiektua egin eta memoria aurkeztu ondoren (aukeraketa-batzordeak ebaluazio positiboa eman beharko dio, dena den, memoriari). Edonola ere, beharrezko fakturak aurkeztu beharko dira kobratu aurretik.

### Faktura bidez justifikatu daitezkeen gastuak

Hona hemen konpainia edo profesionalaren izenean jaulkitako faktura bidez justifikatu daitezkeen proiektuari lotutako gastuak:

- Zuzeneko gastuak: proiektu artistikoa osatzen duten langileen soldatak eta gizarte-segurantzaren gastuak, baita kanpoko baliabideak (ekipo teknikoak eta bestelako bitarteko materialak alokatzea, adibidez) kontratatzeak ekarritako gastuak ere.

- Aukeratutako proiektua gauzatzeko ekipamenduko ondasun inbentariagarriak erosiz gero, gastu diruz lagungarritzat hartuko da haien amortizazioa, egoitza-proiektuari egozten ahal zaion proportzioan, kontabilitateko irizpide orokorren arabera. (282/1997 Foru Dekretua).

- Egoitza-aldian zehar proiektuan nahastutako kideen bidaia, egote eta mantenuen gastuak ere justifikagarriak dira. Ondoko baldintzen arabera izango dira gastu horiek:

- Mantenu-gastuak (gosaria, bazkaria eta /edo afaria) ez dira 45€tik gorakoak izango pertsona eta egun bakoitzeko. Bertako ostalaritza-establezimenduen fakturen bidez justifikatuko dira.

- Bidaien eta/edo kilometrajeen gastuak proiektua osatzen duten kideei baino ez zaizkie aplikatuko, bizi diren tokitik egoitzaren tokira eta alderantziz. Bi aukera dago: joan-etorrietarako erabilitako tren- (turista-klasea) edo autobus-txartelen bidez justifikatzea edo prezio bat ordaintzea kilometro bakoitzeko (0,30 euro/km gehienez).

- Ostatu-gastuak 60 euro pertsona eta egun bakoitzeko izango dira, gehienez.

# I / ERANSKINA. EGOITZEN ESPAZIOAK

## BARAÑAIN AUDITORIOA

### Harremanetarako pertsona

Lorea Mendez Gomez

t. 657 217 916 / 948 281 038

### Espazioaren lan-ildo orokorrak

**Periferia:** dantza-erakustaldia, dantza-egoitza artistikoak, dantza-tailerrak, eta hiru dantza-eskolaren ikastaroak ere hartzen ditugu gure bulegoetan.

**INART:** ikuskizunak, proiektuak eta gizarte-inklusioko egoitza artistikoak arte eszenikoen bidez.

**ONART:** haur, gazte eta familientzako erakustaldia, ikastetxeentzako ikuskizunak, udalekuak.

**BÑB:** musika- eta dantza-ikuskizun askotarikoen erakustaldia. Udalaren lagapenak, ekimenak herriko kolektiboekin eta beste kultura-eragile batzuekin.

### Deskripzio fisiko eta teknikoa

Auditorioak 650 ikusle kabitzen ditu. 500 metro koadroko eszenatokia. 4 entsegu-areto dantza-eskoletarako, tailerretarako eta abarretarako.

### Zer egun eta ordutan erabil dezakeen egoitzak

APIRILA: 1-4, 8, 11, 15-26, 28-30

MAIATZA: 1-2, 7, 8, 10, 13-15, 20-22, 26-30

EKAINA: 1-7, 10-13, 17-19, 21, 23, 24-30

UZTAILA: libre

ABUZTUA: libre

### Bitartekaritza-proiektuak ikusleekin:

#### espazioarekin lotura duten entitate, elkarte edo eskolen zerrenda

HAIZEA dantza-elkartearen egoitza da Barañain Auditorioa. Lotura dugu IES Barañain eta Alaitz BHI institutuekin eta hainbat proiektu egin ditugu jada haiekin. Datu-base bat dugu, dantza-eskolak eta diziplina horretan interesa duten ikusle guztiak biltzen dituena. Beste zerrenda batean Barañaingo elkarteak eta kolektibo guztiak ditugu.

## TAFALLA KULTURGUNEA

### Harremanetarako pertsona

Javier Ayerra Alfaro

---

t. 646 150 217

---

### Espazioaren lan-ildo orokorrak

El Centro Cultural Tafalla Kuturguneak hainbat ikuspuntutatik lan egiten du. Alde batetik, programazio orokor egonkor eta askotarikoa du, generalista izaerakoa, antzerkia, musika, dantza, haurrentzako saioak, euskarazko saioak eta abar biltzen dituena eta tokiko antzerki-, musika- eta dantza-taldeak sortzen laguntzen duena. Bestetik, zine komertziala eta zine-zikloak programatzen ditu, laguntza ematen die ikastetxeei irakaskuntza- eta kultura-jardueretan, liburuak aurkezten ditu, entitateei laguntzen die eta izaera publikoko bilera eta hitzaldiak antolatzen ditu.

---

### Deskripzio fisiko eta teknikoa

María del Villar Berruezo erabilera anitzeko aretoa eskaintzen da (Areto Beltza esaten zaio). 12 x 10 metroko, gutxi gorabehera, dantza-zorua jarriko da han. Soinu-hornidura teknikoa du aretoak altuerako galeria batzuetan, zeinetan argiztapena jartzen ahal baita (nahikoa patch du aretoko edozein tokitatik argiztatzeko).

---

### Zer egun eta ordutan erabil dezakeen egoitzak

Ekainean: 3tik 28ra arte. Astegunak, 09:30-14:00 eta 15:00-21:00. Larunbat eta jaiegunak, galdetu. Espazio gehiago behar izanez gero, zoru flotatzaileko dantza-aretoa ere erabil liteke 09:30etik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.

---

### Bitartekaritza-proiektuak ikusleekin:

#### espazioarekin lotura duten entitate, elkarte edo eskolen zerrenda

Tafallan dantza-eskola bat dago (Ana Irala), pribatua. Dantzari-talde bat ere badago, eta elkarte soziokulturalak ere BAI: barietate tafallarren taldea, areto-dantza taldea...



### Harremanetarako pertsona

Elisa Arteta

---

t. 948 361 457

---

### Espazioaren lan-ildo orokorrak

Praktika eszenikoetarako areto nagusia erabilera anitzekoa da, zabala, argi naturalarekin eta egurrezko zoruarekin. Baina, harez gain, beste areto bat (gorputzen laborategia) du Huarte Zentroak duela hainbat hilabetetatik; txikiagoa da eta zoru gogorragoa du, eta audiolab-era lotuta lan egiteko aukera eskaintzen du, hau da, bikaina da gorputzaren eta soinuaren, baita ikus-entzunezko irudiaren, bidez ikertzen dituzten proiektuetarako.

---

### Deskripzio fisiko eta teknikoak

Erabilera anitzeko aretoa: 180 m<sup>2</sup>, 4,5 m-ko altuerarekin, eta 66 m<sup>2</sup>, 3,5 m-ko altuerarekin. Gorputzen laborategia: 60 m<sup>2</sup>, 4,30 m-ko altuerarekin. Huarte Zentroak baliabide tekniko eta teknologikoak (bideo-kamera, mikrofonoak, plotterak, inprimagailuak, soinu-grabatzailak, eta bideoak eta soinua editatzeko programak) jartzen ditu artisten eskura proiektuak garatu ditzaten. Webgune honetan daude ikusgai baliabideak: [www.centrohuarte.es/elcentro/instalaciones/](http://www.centrohuarte.es/elcentro/instalaciones/)

---

### Zer egun eta ordutan erabil dezakeen egoitzak

Atalak, ekainaren 12tik 22ra. Astegunak, 09:30-14:00 eta 15:00-21:00. Larunbat eta Produkzio-zentro gisa duen ordutegia 10:00etatik 20:00etara da, astelehentik ostiralera. Asteburuetan, 11:00etatik 14:30era dago zabalik jendearentzat, eta espazio batzuk ere erabil daitezke, libre badaude.

---

### Bitartekaritza-proiektuak ikusleekin:

#### espazioarekin lotura duten entitate, elkarte edo eskolen zerrenda

Huarte Zentroa arte-produkzioko espazio bat da, esperimentazio eta ikerketa teoriko eta/edo praktikoa ardatz duena eta arte-baliabide mota guztietarako bitartekoak eskaintzen dituena, elkar elikatzen dituztela ulertzen baitugu. Sare afektibo eta profesionalak ehuntzeko toki bat ere bada, bai egunero zentroan bizi diren eta lan egiten duten pertsonekin, bai zentroarekin kolaboratzen duten kanpoko beste entitate, espazio eta profesional batzuekin. Kolektiboak, elkarteak: Huarte Zentroan toki-komunitatea nahasten duten proiektuak garatu ohi dira, mota askotako kolektibo eta elkarteekin. Arte-lanabesak hurbildu nahi dizkiogu jendeari, zertarako eta arte-materialak, ezagutzak eta/edo adierazpideak sortzen dituzten prosezuetan mugildu daitezzen, nahiz eta artea emaitza bizigabe gisa ulertzen duten.

## HARRIONDOA KULTUR ETXEA-LESAKA

### Harremanetarako pertsona

Belén Mutuberria Vergara

---

t. 948 638 007 / 690 230 031

---

### Espazioaren lan-ildo orokorrak

Programazio jarraitua eramaten saiatzen gara, diziplina eta ikusle-mota desberdinak kontuan hartuz, denetarik pixka bat denentzat eskaini ahal izateko. Horretara bideratutako aurrekontua kontuan hartzen dugu eta toki- eta jai-agendarekin koordinatzen gara betiere.

---

### Deskripzio fisiko eta teknikoa

Hona aretoaren neurriak: 12,6 m zabal, 18,45 sakon eta 10,32 m garai. Argiztapena (pach bideo-kabina), proiektagailuak, ikus-entzunezkoak eta mikrofonía ditu. Aretoko eta laneko argia galeria, eszenatoki eta kabinatik piztu daiteke. Kabina besaulki-aretoaren gainetik dago, eta handik maneiatzen dira argi, irudi eta soinurako kontrolak.

---

### Zer egun eta ordutan erabil dezakeen egoitzak

Apirilaren 29tik maiatzaren 26ra

---

### Bitartekaritza-proiektuak ikusleekin:

#### espazioarekin lotura duten entitate, elkarte edo eskolen zerrenda

Entitate hauek erabiltzen dute: Gure Arrano Elkartea, Tantirumairu ikastola, Otxogorrienea guraso elkartea, Bortziritako bertso eskola, Irain gurao elkartea, Irain eskola, Mairu antzerki taldea, San Fermín jubilatuek elkartea, Tantirumairu Euskal Folklore taldea, Lesakako Zertitzuen Elkartea, Lesakako Euskara Batzordea, Buruztanka Elkartea, S.C.R.D. Beti Gazte K.J.K.E., Sociedad Pelotazale Arkupe, Batzoki Elkartea, Bortziriak Pilota Elkartea, Lesakako Abesbatza, Giltzarri Abesbatza, Musika Eskola, Lesakako musika banda, Lesakako soinulariak, Trikitritxa Taldea, Txistulari Taldea, Bortziritako gorriak, Bihotzkada Kolektiboa.